



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA  
2017/02/28

## **Batzar Nagusiek ez dabe onartu Bizkaiko jaieguna San Inazio eta Balendin Berriotxoaren egunen artean banatzerik**

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu gaur hemendik aurrera Bizkaiko jaieguna garagarrilaren 4aren eta 31ren, Balendin Berriotxoaren eta San Inazio egunen, artean banatzerik. Talde mistoak, Arauz besteko proposamenaren bitartez, Lurraldeko jaieguna Bizkaiko zaindarien artean banatzea proposatu dau Bizkaiko Batzarretako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean, San Inazio jausten dan asteko egunaren arabera, hau da, garagarrilaren 31 jaieguna izatea bariku, zapatu, astelehen edo martitzen danean eta garagarrilaren 4a gainerako kasuetan. Bizkaiko Batzarretako gainerako talde guztiak idearen kontra agertu dira, aho batez.

Talde Mistoko Arturo Aldecoak formula hori planteatu dau, “baina beste bat be izan eikean”, herritarrek “aurretik” jakin deien zein egun izango dan jaieguna, “oporretako denporea banatzeko”. Aldecoaren eretziz, emoten dau “komenigarria” dala aukeraketea arautzea, Bizkaian erespide “argia” ezarteko, hemendik aurrera Aldundiak “modu sistematikoan” aplikatu daian.

Batzarretako gainerako taldeak neurriaren kontra agertu dira, hainbat errazoi dirala eta. PP taldea ez da agertu banaketan “oreka handiagoa” lortzearen kontra –gaur egun jaieguna San Inazio domekan danean baino ez da aldatzen– baina bere eretziz, neurria, Beharginen Estatutuak arautzen dauen eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena dan “gaur egungo prozeduraren kontrakoa” da.

Podemos Bizkaiak adierazo dauenez, Batzar Nagusiek ez dabe alderdi hori arautzeko eskumenik. Asun Merinerok esan dauenez, “aztertu egin daiteke”, Aldecoaren proposamena “konplexua” dala adierazo aurretik. Bere eretziz, ez dau “jenteari laguntzeko” balioko eta, horrez gain, herritarren eta bere taldearen “lehentasunetik kanpo dagon” gaia da.

Ekain Ricok (PSE-EE) bere aldetik, bere taldea “eskumenakaz erlazionautako zergaitiak” dirala eta, eta gaiak “ez daukalako lehentasunik herritarrentzat” ez dala proposamenaren alde agertu azaldu dau. Ez da “sakonean” eztabaidatzearen kontra agertu, baina “beste foro batzuetan”:

EH Bilduko Joseba Gezuragak, bere aldetik, azaldu dau Balendin Berriotxoaren jai eguna dala orain 500 urtetik Bizkaiko zaindariaren eguna dan garagarrilaren 31 asteko azkenengo eguna danean. Koalizio abertzaleko batzordekidearen eretziz, Talde Mistoaren idea “nahasgarria” da eta, horren bitartez, proposamena aurkeztu dauen batzordekideak “jaiegunez osatutako zubia sortzea” baino ez dau bilatzen.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bukatzeko, Jon Andoni Atutxak (EAJ-PNV) be eskumenakaz erlazionautako zergaitiak eta “ez dala gizartearen ardura nagusietakoa” aitatu ditu bere taldearen ezezkoa azaltzeko. Gaur egungo egoereagaz jarraitzearen alde agertu da, talde Mistoaren ekimenak “pertsonak nahastu daikezalako”.

## 2014KO ERREFORMA FISKALA “SAKON” AZTERTZEA

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak behin eta barrero adierazo dauenez, beharrezkoa da 2014ko erreforma fiskalaren emoitza “sakon” aztertzea, arlo horretan ezelango aldaketarik sartu aurretik. Balizko aldaketa hori egin ezker, ez litzateke Soziedadeen Zergea bakarrik hartu beharko kontuan “tributu-figura asko dagozalako”.

Rementeria, berak eta Podemos Bizkaia taldeak eskatuta agertu da Bizkaiko Batzarretako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean, joan dan zezeilaren 13an egin zan Finantzetako Euskal Kontseiluaren bileran landutakoaren barri batzordeko taldeen aurrean emoteko. Bilera horretan, 2016ko ekitaldian Aldundiek aurrekontu gastuetara eta Doikuntzarako Funts Orokorra egindako ekarpenen likidazinoa landu zan.

Bizkaiari jagokonez, bertako Ogasunak, tributu kontzertuetan 6.715 milioi euroko diru-bilketeagaz itxi eban igazko ekitaldia, 2015ean baino %3,1 gehiago. Halanda be, diru-bilketa hori, 2015ean egindako aurreikuspenak baino %4,9 baxuagoa eta joan dan urrian egindako Finantzen Kontseiluak egin eban aurreikuspena baino %0,3 baxuagoa izan da.

Holan, , Bizkaiko diru-bilketea 2015eko urrian aurreikusitakoa baino 347 milioi euro gitxiago izan bada be, “2016ko aurreikuspen zorrotzagoakaz alderatuta, aldea 21 milioi eurokoa baino ez dala izan” azpimarratu dau Ahaldun Nagusiak eta, ganera, “ez dogula ahaztu behar” 2015ean baino “200 milioi euro gehiago biltzea” lortu dala. Lurraldeak 1.005 milioi euro banatu ebazan aurreko ekitaldian BEZaren eta Zerga Berezien doikuntzatan, eta horreetatik 239 milioi Arabara joan ziran eta 766 Gipuzkoara.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunak behin eta barrero esan dau, oposizinoak eskatzen dauen moduan diru-bilketea handitzeko fiskaltasunaren erreformari ekin aurretik, beharrezkoa dala 2014ko urtarrilean indarrean sartu zan erreforma fiskalaren emoitza finkatuak “sakon” aztertzea. Adierazo dauenez, neurriren bat hartu behar bada, “datu horreek guztiak mahai gainean jarri ostan” egin beharko da, eta ez bakarrik Soziedadeen Zergea kontuan izanda.

Soziedadeen Zergea aldatzeko egin diran eskariei jagokenez, erreforma fiskala Soziedadeen Zergan zentrau gura bada, “hori egin daikela” esan dau, baina “tributu-figura asko dagozala” azpimarratu dau.

Azaldu dauenez, tributu horrek %5 laguntzen dau Aldundiko diru-bilketan, foru arautegiaren menpe dagozan enpresak kontuan izanda, eta ehuneko hori %7,7ra igoten



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

da konpainia guztiak hartzen badira kontuan. Rementeriak adierazo dauenez, zerga horren inguruan berba egiten danean “ahaztu egiten da oso krisi larria igaro dogula” eta, hori dala eta, azken urteotan, zerga horri jagokon diru-bilketak behera egin dauela.

## ERREFORMEA

Oposizino taldeen aldetik, Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, gaur egungo sistema fiskalak “ez dauela funtzionetan” esan dau eta, hori dala eta, “zer edo zer egin beharko dala”. Holan, Soziedadeen Zergea aztertzeke eskaria egin dau, zerga horri jagokon diru-bilketea “behera egiten dabilelako urterik urtera 2007tik”.

Urkaregik zehaztu dauenez, ez dabil “tasea igotzeaz” berbetan, “tasa hori jaisteko adostasuna be lortu geinke”, “dedukzinoen sarea benetan” lantzen bada. Bere erantzunaren txandan aukera hori aztertu egingo dauela adierazo deutso Rementeriak. Batzordekide abertzaleak azpimarratu dauenez, gaur egungo sistemeagaz, zergen “karga nagusia, ia osoa”, beharginen gain dago, PFEZren eta BEZaren bitartez.

Asun Merinero Podemos taldeko batzordekideak erreforma fiskal integrala eskatu dau, eta “arduratuta dagola” adierazo dau, azkenengo urteetan, egindako aurreikuspenak alderatuta, gertatu dan “desbideraketea” dala eta, izan be, “gizarte arloko gastua” diru bilketa horren menpe dago.

Javier Ruiz PP taldeko bozeroaleak, diru-bilketaren aurreikuspenak bete ez izanak ekarriko dituan “eragin zehatzak” azaltzeke eskatu deutso Aldundiari. Horrez gain, arduratuta agertu da, 2017ko aurreikuspenak “mimetikoak” izango diralako. Soziedadeen arloan egiten dan presino fiskala “erlaxetearen” aldeko apustua egin dau, presino hori ekonomia dinamizetara “bideratzeko”.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak gogoratu dauenez, aurreikuspenetan izandako “akatsak”, “ezegonkortasun orokorreko agertoki barrian” gertatu dira, eta Aldundiari “erabateko zuhurtzia” eskatu deutso, ez dalako “esperimentuak egiteko” unea.

Gobernu taldea osatzen daben taldeen aldetik, Jesus Lekerikabeaskoak (EAJ-PNV) eta Ekain Ricok (PSE), 2017ko aurrekontuak joan dan urrian egindako diru-sarreraren aurreikuspenetan oinarrituta egin dirala gogoratu deutesie oposizino taldeei, eta aurreikuspen horreek “%99,7an bete dira”.

EAJ-PNVko batzordekideak diru-bilketaren aurreikuspenak egiteak daukan gaiztasuna azpimarratu dau, eta aurreko ekitaldian bete ziran aurreikuspenak azkenengo ekitaldian bete ez izanaren inguruan oposizinoak egin dituan kritikei erantzun deutse.

Batzordekide sozialistak, gainera, 2014ko erreformak, 2013koagaz alderatuta “1.200 milioi gehiago biltzea” lortu ebala azpimarratu dau. Halanda be, argi eta garbi itzi gura izan dau horrek ez dauela beste erreforma bat egin behar danik esan gura,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“eboluzionetan jarraitu behar dalako”, baina “zerk funtzionau dauen eta zerk ez dauen funtzionau aztertu osten”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

28/02/2017

## **Las Juntas Generales rechazan repartir la festividad de Bizkaia entre San Inazio y San Valentín de Berriotxo**

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy repartir en el futuro la festividad de Bizkaia entre el 4 y el 31 de julio, días de San Valentín de Berriotxo y San Inazio, respectivamente. El grupo Mixto ha defendido en la comisión Institucional, Transparencia y Buen Gobierno de la Cámara vizcaína, por medio de una proposición no de norma, alternar la jornada festiva del Territorio entre los dos patronos de Bizkaia en función del día de la semana en la que caiga San Inazio, de tal forma que el 31 de julio sea festivo cuando coincida en viernes, sábado, lunes o martes, y el 4 de julio lo sea en el resto de casos. La idea ha sido desestimada en bloque por el resto de grupos del parlamento vizcaíno.

Arturo Aldecoa, representante del grupo Mixto, ha planteado esta fórmula, “que podría ser otra”, para que la ciudadanía sepa “con antelación” qué jornada será festiva, a efectos de “distribuir el tiempo vacacional”. Aldecoa cree que una elección regulada parece “conveniente” para fijar en Bizkaia un criterio “claro” al respecto que pueda aplicarse en el futuro por la Diputación “de forma sistemática”.

El resto de grupos de la Cámara ha rechazado la medida por distintas cuestiones. El PP no se ha negado a establecer un “mayor equilibrio” en el reparto –actualmente solo se traslada la festividad cuando San Inazio cae en domingo- pero sostiene que la medida “choca con el procedimiento actual” que viene regulado por el Estatuto de los Trabajadores y que es competencia del Gobierno vasco.

Podemos Bizkaia ha advertido de la incapacidad competencial de las Juntas Generales para regular esta cuestión. “Se puede revisar”, ha dicho Asun Merinero, antes de tachar la propuesta de Aldecoa de “compleja”. No servirá, a su juicio, “para ayudar a la gente”, además de ser un tema que “se escapa de las prioridades” de la ciudadanía y de su formación.

Por su parte, Ekain Rico (PSE-EE) ha justificado la negativa de su grupo a apoyarla “por cuestiones competenciales” y porque el tema “no supone ningún problema para la ciudadanía”. El juntero socialista no se ha cerrado a que se debata “en profundidad”, pero “en otros foros”.

Asimismo Joseba Gezuraga, de EH Bildu, ha explicado que San Valentín de Berriotxo ya es festivo cuando el 31 de julio, “patrón de Bizkaia desde hace 500 años”, coincide con el último día de la semana. El apoderado de la coalición abertzale cree que la idea es “confusa” y que, con ella, su proponente persigue “crear un puente festivo”.

Por último, Jon Andoni Atutxa (PNV) ha justificado la negativa de su grupo en el asunto competencial y en que “no es una preocupación social”. Aboga por mantener la situación actual, ya que la iniciativa del grupo Mixto puede “marear a las personas”.

ANALIZAR "EN PROFUNDIDAD" LA REFORMA FISCAL DE 2014



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Por otro lado, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha insistido en que es preciso analizar "en profundidad" los resultados de la reforma fiscal de 2014 antes de abordar una posible modificación en esta materia, que debería hacerse no sólo teniendo en cuenta el Impuesto de Sociedades ya que "hay muchas figuras tributarias".

Rementeria ha comparecido, por iniciativa propia y de Podemos Bizkaia, ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia para informar a los grupos junteros sobre los acuerdos adoptados en el Consejo Vasco de Finanzas del pasado 13 de febrero, en el que se abordó la liquidación de las aportaciones de las diputaciones a los gastos presupuestarios, así como al Fondo General de Ajuste, correspondientes al ejercicio 2016.

Por lo que respecta a Bizkaia, su Hacienda cerró el pasado ejercicio con una recaudación por tributos concertados de 6.715 millones de euros, un "3,1%" más que en 2015. No obstante, la recaudación se quedó un "4,9%" por debajo de las previsiones que se habían realizado en 2015 y un "0,3%" por debajo de la estimación del Consejo de Finanzas del pasado mes de octubre.

De este modo, el diputado general ha remarcado que, si bien la recaudación vizcaína ha sido 347 millones menos que lo presupuestado en octubre de 2015, "respecto a las previsiones más ajustadas de octubre 2016, la diferencia es de 21 millones" y, además, "no hay que olvidar" que se han logrado "recaudar 200 millones más" que en 2015. El territorio repartió el pasado ejercicio 1.005 millones en ajustes de IVA y Especiales, de los que 239 fueron a Álava y 766 a Gipuzkoa.

El responsable de la Diputación vizcaína ha reiterado que, antes de abordar una reforma de la fiscalidad para incrementar la recaudación, aspecto solicitado por la oposición, es preciso analizar "en profundidad" los resultados consolidados de la reforma fiscal que entró en vigor en enero de 2014. Según ha señalado, si hay que adoptar alguna medida, se debe efectuar "con esos datos sobre la mesa" y no sólo teniendo en cuenta el Impuesto de Sociedades.

En relación a las peticiones de modificación del Impuesto de Sociedades, ha señalado que, si se desea centrar la reforma fiscal en este impuesto "se puede", si bien ha subrayado que existen "muchas figuras tributarias".

Este tributo, ha explicado, contribuye con un 5% a la recaudación foral teniendo en cuenta las empresas sujetas a normativa foral, mientras que este porcentaje se eleva al 7,7% si se tienen en cuenta el conjunto de compañías. Rementeria ha advertido de que, cuando se aborda este impuesto, "se olvida que ha habido una crisis importantísima" y que, por ello, ha ido descendiendo la recaudación en los últimos años.

## LA OPOSICIÓN PIDE UNA REFORMA FISCAL

Por parte de los grupos de la oposición, la juntera de EH Bildu Arantza Urkaregi ha asegurado que el actual sistema fiscal "no funciona" y, por ello, "algo hay que hacer". En este sentido, ha instado a analizar el Impuesto de Sociedades, cuya recaudación "está bajando desde 2007".

Urkaregi ha precisado que no habla de "subir el tipo", sino que "hasta podríamos ponernos de acuerdo en bajarlo" si "realmente" se aborda "el entramado de deducciones", guante que ha recogido Rementería en su turno de réplica. La abertzale ha advertido de que el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

actual sistema hace que "la inmensa carga" tributaria caiga sobre los trabajadores a través del IRPF y el IVA.

La juntera de Podemos Asun Merinero ha pedido una reforma fiscal integral y ha expresado su "preocupación" por la "desviación" de la recaudación en los últimos años en relación a las previsiones efectuadas ya que, de esta recaudación, "depende el gasto social".

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha pedido a la Diputación que precise "las afecciones concretas" que supondrá el no haber cumplido las previsiones de recaudación, así como su preocupación por el hecho de que las estimaciones para 2017 sean "miméticas". Ha apostado por "relajar" la presión fiscal en Sociedades para ponerla "al servicio" de la dinamización de la economía.

El apoderado del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha recordado que los "fallos" en las previsiones se han producido en "un escenario nuevo de inestabilidad global" y ha pedido "absoluta prudencia" a la Diputación ya que no es momento para "hacer experimentos".

Por su parte, desde los grupos que conforman el equipo de Gobierno, Jesús Lekerikabeaskoa (PNV) y Ekain Rico (PSE) han recordado a los grupos de la oposición que los presupuestos de 2017 se han efectuado con las previsiones de ingresos del pasado mes de octubre, que "se han cumplido en un 99,7%".

El juntero del PNV ha destacado la dificultad de efectuar las previsiones de recaudación y ha respondido a las críticas de la oposición sobre el no cumplimiento de las estimaciones que, en ejercicios anteriores, sí se alcanzaron.

El apoderado socialista, además, ha subrayado que la reforma de 2014 consiguió "1.200 millones más de recaudación" con respecto a 2013. No obstante, ha precisado que esto no supone que no haya que hacer una nueva reforma porque "hay que seguir evolucionando", pero "tras estudiar qué ha funcionado y qué no".